



**ELITEKO LAU T'ERDIKO TXAPELKETA OSTIRAL HONETAN
ABIATUKO DA, ARETAKO PILOTALEKUAN (19:30).
ZORTZI PILOTARIK HARTUKO DUTE PARTE**

Beste urtebetez ere, Aretako pilotalekuak hartuko du eskuzko afizionatu mailako eliteko lau t'erdiko txapelketa. Ostiral honetan abiatuko da, eta zortzi pilotarik parte hartuko dute. Jaialdi guztiak ostiralez jokatu dira, 19:30ean hasita, eta lau final-laurden, bi finalerdiz eta finalaz osaturik egongo da txapelketa. Joan den urteko txapelduna Iker Irribarria da, egun Aspeko pilotaria dena, eta haren balentria bera lortzen ahaleginduko dira parte hartzaileak.

Hain zuzen ere, txapelketa honetan parte hartuko duten pilotariak hautatzerako orduan, irizpide ezberdinak erabili ditu Euskadiko Euskal Pilota Federazioak. Lau pilotari ranking bidez hautatuak izan dira: G. Urionabarrenetxea, Ugaitz Elizalde, Joanes Bakaikoa eta Aitor Arabiourrutia. Beste bi pilotari hautatuak izan dira EH-ko klubaren arteko txapelketan buruz buru finalera iristeagatik: Jon Olaizola eta Andoni Ugalde. Eta azken biak, berriz, iazko lau t'erdiko txapelketan lehen bi sailkatuak izan zirelako: Aitzol Dorronsoro eta Xabier Urbieta (hirugarren sailkatu zen, eta Irribarriaren lekua hartuko du).

Beraz, maila eta ikuskizuna ziurtaturik izango du txapelketak, izen eta izan handiko pilotariak izango direlako Aretako pilotalekuan. Txapelketaren egutegia atxikita daukazue. Final-laurdenak datozen lau ostiraletan jokatu dira. Finalerdiak abenduaren 4an izango dira, eta final handia abenduaren 11n jokatu da.

ETBren kamerak finalean izango dira, ondoren partida ETB 4 katean eskaintzeko.